

Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea

Maria González Gorosarri
EHUko bekaduna

Euskarazko tokiko hedabideek informazio-eremu propioa eurenganatu dute. Hala ere, errealitate heterogeneoa osatzen dute. Badira aitzindariak izatera heldu diren aldizkariak eta azken urteotan sortutako argitalpen berriak. Hainbat maiztasunetako produktu informatiboak dira eta, gainera, euren edukiak aldatzeko gaitasuna erakutsi dute. Horregatik, tokiko aldizkariak argitaratzen duten informazioaren kalitatea aztertzeak egindako lanaren berri emango digu. Zabalkunderik handiena duten euskarazko argitalpenak izanda, lantzen duten kazetaritza-ereduak eragin nabarmena du euskal komunitatean. Hortaz, euskararen erabilera sustatzeko helburua ez ezik, informazioa ere badute xede nagusi.

Local media in Basque have raised their own information ground. Nevertheless, it is consisted of a heterogeneous reality. At the same time some magazines have become referents, new papers have recently arisen. Basque local media are information projects according to different periodicity rates and, moreover, they have shown their ability to change their own contents. Thus, this article will focus on the quality of the information local media in Basque publish. They are the most read papers in Basque and the journalism model they work through has been really influent on the Basque speakers' community. Not only they have objectives related to the language, but they also deal with proper journalistic information.

1. Sarrera*

Ibilbide luzea eginda duten tokiko hedabideak ditugu Euskal Herrian. Horien ondoan, etengabe sortzen hasten diren bestelako aldizkariak ere erraz topa ditzakegu. Euskararen normalizaziorako tresna ezin eraginkorragoak bihurtu dira. Ohikotasunez euskaraz irakurtzeko zaletasuna garatu dute eta, hainbat irakurleren ama hizkuntza izan arren, euskaraz alfabetatuak ez direnek horretarako gaitasuna landu ahal izan dute tokiko aldizkarietarako.

Euskararen erabilera sustatzeko herririk herri sortutako euskara elkarteek abiatu ohi dituzte tokiko hedabideak. Euskara hizkuntza koofiziala den eremuan izugarri zabaldu dira eta, gaur egun, berrogeitik gora tokiko aldizkari ditugu. Hainbat kasutan, gainera, eredu multimediara jo dute eta, aldizkariak gain, irratia edota telebista ere sortu dituzte. Horregatik guztiagatik, gainerako hizkuntza gutxituen eremuan parekorik ez duen komunikazio-esparrua garatu du euskarak. Izan ere, 800.000 hiztun dituen komunitate baten informazio-eskubidea asetzeko tokian tokiko berrogeitik gorako hedabide ditugu Euskal Herrian.

Hamar aldizkari osatutako lagina prestatu dugu. Argitalpenek tradizio bera partekatzen dute eta lurraldetasunak, antzinatasunak nahiz maiztasunak elkarrengandik bereizten dituzte. Hortaz, sortu berri diren *Hitzak* ez ditugu lan honetan aztertu, geroago horretan sakontzeko asmoa badugu ere. Era berean, Hego Euskal Herrian zabaldu den tokiko hedabide prototipoa aztertu dugun neurrian, *Herria* astekaria ere gure laginetik kanpo geratu da.

Lanaren mugak hainbat alde ikerlan honetatik kanpo uztera ere eraman gaitu. Horregatik, testuak irakurterazak izan daitezen kazetarietarako maketazio-arauak betetzen ote dituzten aztertuko dugu, aldizkariaren diseinuaren egokitasuna ebatzi barik. Horrek, izan ere, beren-beregiko beste lan bat eskatzen du-eta. Era berean, aldizkariaren web orria ere ezin izan dugu hemen aztertu. Gainera, bada oraindik Internetetarako jautzia eman ez duen hainbat hedabide.

Beraz, eredu klasikoko edo autonomian oinarritutako hamar tokiko aldizkari aztertuko ditugu ikerlan honetan, kaleratzen duten informazioaren kalitatea urteotako eskarmentuarekin hobetu delakoan. Azkenik, gai bera jorratu duten gainerako lanen osagarri izatea nahiko luke ikerlan honek, tokiko hedabideek etengabe ekimen berriak martxan jartzen dituztelako eta horiek aztertu ezin izan ditugulako.

2. Ikergalderak eta hipotesia

Lan honetan honako ikergalderak argitu nahi izan ditugu:

- a. Aldizkariak *gero eta orri kopuru altuagoa* argitaratzen ahalegintzen dira?
- b. Zelan planteatzen dute euren etorkizuna *maiztasunari begira*?
- c. *Informazio soilaren eta genero landuen arteko orekarik* eusten saiatzen dira?

*. Artikulu hau EHUko irakasle Txema Ramirez de la Piscinaren zuzendaritzapean egindako ikerlanaren zatia da.

- d. Zeintzuk dira albisteen jatorri nagusiak? Bilakaerarik egon da?
- e. Bilakaerarik balego, *politikak gizarte-gaiak ordeztu ditu?*
- f. Publizitateak goia jo duen honetan, aldizkariak *aurrera begirako diru-iturri berririk* bilatzen hasi dira?
- g. Balio Erantsiaren gaineko Kazetaritza Indizeak (BEKIk), euskara mailak eta maketazioak *goranzko joerarik* azaldu dute?

Ikergaldera horiek argitze bidean, hona hemen lan honetan egiaztatu nahi izan dugun hipotesia: **euskararen normalizazio-prozesuan tokiko aldizkariak berezko eginkizuna bete badute ere, aurrera begira, iraun nahi badute, kalitateak bereizi behar ditu aldizkariok gainerako argitalpenetatik, are gehiago, kazetaritzaren panorama inoiz baino aldakorrago ageri zaigun une honetan.**

3. Ikergaiaren egoera

Euskarazko tokiko aldizkariak euskara elkarteek sortutako hedabideak dira. Horrela, sasoiari sasoi komunikazio-enpresa taldeetatik aparte, tokian tokiko argitalpenak zabaldu dira, 1975etik hona. Fenomeno hori bi doktore-tesiren gai nagusia izan da 2000. urtetik aurrera: Asier Arangurenen *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian* eta Idoia Camacho Markinaren *Herri aldizkarien funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)*, hain zuzen.

Asier Aranguren (2000: 15) honela definitzen ditu tokiko hedabideak:

Herri, hiri edo eskualde jakin bateko bizilagunek berta-bertako informazioa jasotzeko daukaten eskubide eta jakinminari bereziki erantzuteko asmoz sortutako komunikabideak dira.

Idoia Camacho Markinak, ostera, irizpide geografikoa “garrantzitsuena” ez delakoan, honako ezaugarri nagusiarekin identifikatu du aztergai dugun prentsa: «Tokian tokiko agerkarietan gertakariak ikuspuntu lokaletik begiratu behar dira, nahiz eta esparru orokorrean gertatu» (2001: 93). Hortaz, honako ezaugarriak aintzatetsi dizkie Camacho Markinak euskarazko tokiko aldizkariari (2001: 100):

(...) Tokian tokiko albisteetan oinarrituak, doakoak, euskaraz idatziak, erakunde publikoen diru-laguntzaz eta publizitateaz finantzatuak, eduki arin eta irakurteraz hedarazleak, informazio orokorraren hedarazleak, astekariak, hamaboskariak edo hilabetekariak, herritar guztioi zuzenduak eta gaurkotasunera mugatuak.

Euskarazko tokiko aldizkariak beste behin ere dinamikotasuna erakutsi berri dute. Orain bost urte aurkeztu zen Idoia Camacho Markinaren tesiak, ildo horretatik, ezin izan ditu azken-azken momentuko gertakizunak jaso. Diru-iturriari dagokiela ere, diru-laguntzak hazi ez diren epealdian eta publizitateak goia jo duelakoan, aldizkariak beste finantziario-iturrien bila ari direla frogatuko dugu. Argitalpenen doakotasuna bera ere ez da erabatekoa, adibidez, *Tipi-Ttapa* eta *Geu* ordaintzekoak dira.

Epe labur horretan, lan honetan egiaztatuko dugun bezala, maiztasunean jauzi ikaragarria eman duten zenbait argitalpen dugu (*Hernaniko Kronika* egunkaria

edota astean birritan kaleratzen den *Txintxarri* aldizkaria)¹. Asier Arangurenek ere ez zuen tokiko prentsaren azken fenomeno hori aztertzerik izan. Orain sei urte, lau multzo nagusitan banatu zituen orduko aldizkariak; ondokoak alegia: astekariak, hamabostekariak, hilabetekariak eta agerkariak. Sei urte geroago, aldizkarien erritmoa eta maiztasuna finkatu dela esan daiteke eta, horregatik, agerkarien kategoriarik aurreikusi ere ez da egiten. Hamabostekari izatetik astekari izatera, lehenengo, eta astean birritan kaleratzera pasatu da *Txintxarri*, azaldu berri dugun moduan. Maiztasuna areagotu ez ezik, astean seitan argitaratzen diren *Hitzak* eta *Hernaniko Kronika* egunkaria ere sortu dira Arangurenek eta Camacho Markinak euren lanak aurkeztu eta gero.

Lan horiek aztertu dituzten urteetan, bi epe bereizi ditu Idoia Camacho-k, 1995. urtea mugarri. Horren aurretik, bere ustez, «lantalde gehienen ardurak bakarrik aldizkaria garaiz egin eta banatzea zen». Horregatik, epe horretan «hazkunde kuantitatiboa» gertatu zela dio. Euskarazko tokiko hedabideak *piztu* ziren garaia dugu hori. Bigarren epean, ordea, «euskaraz izatea bigarren mailara» igaro zen eta, horregatik, aldizkariak hizkuntza normalizatua duten hedabideen «funtzioak» hartu zituzten: «Diseinua erakargarriagoa egin, edukiak aniztu, idazkera gehiago zaindu, herritarren partaidetza sustatu, euskarazko publizitatea bultzatu, beraien arteko harremanak indartu...». Bigarren epe horretan «tokiko agerkarien hazkunde kualitatiboa» gertatu zela azaldu du Camacho-k (2001: 307). Hortaz, aldizkariak aurrera egitea lortu zuten, hau da, *iraun*.

Lan honek tokiko aldizkariak hirugarren fase batean daudela egiaztatu nahi du. Horretarako, fenomeno berriak eta ibilbide luzeko argitalpenak aztertuko ditugu, euskarazko tokiko aldizkariak «beldurrik handiena arrakasta lortuta duenaren patxadan erortzea» izan daitekeelakoan (Aranguren, 2000: 229). Aldizkariok hizkuntza-komunitatea *irauli* egiteko gai direla frogatu nahi dugu.

4. Metodologia

Lehenengo eta behin, hamar aldizkariak osatutako *lagina* prestatu dugu. Argitalpenek tradizio bera partekatzen dute eta lurraldetasunak, antzinatasunak nahiz maiztasunak elkarrengandik bereizten dituzte. Gorago azaldu bezala, sortu berri diren *Hitzak* eta *Herria* astekaria ez ditugu lan honetan aztertu, geroago horretan sakontzeko asmoa badugu ere. Hego Euskal Herrian zabaldutako tokiko hedabide prototipoan oinarritutako hamar aldizkari aukeratu ditugu, ondoko aldagaiei jarraiki: antzinatasuna, maiztasuna eta lurraldea. Hona hemen irizpide horietan oinarrituta, ikerlan honen lagina osatzen duten hedabideak.

Ondoren, aztertu beharreko aldizkari kopurua *zorizko lagin sistematikoaren* arabera egin dugu: «Hasiera-puntu aleatoriotik hasiz eta aldiro n_{tarte} erabiliz, n_1 lagina osatu» (Zabaleta, 1997: 163-164). Ikerlan honetarako, hasiera-puntu aleatorioa lehenengo zenbakia izan da. Gainera, zenbaki horrek aldizkariaren inguruko informazioa dakar. Hortik aurrera, n_{tarte} unitatea urtea izan da, eta lagineko hirugarren aldizkaria hurrengo urteko jarraikako zenbakia litzateke. Lagina osatzeko modu horri «aldizkako astea» ere esaten zaio eta dagoeneko

1. Camacho, 2001: 99: «(...) Euskarazko prentsa lokalean ez dago egunkaririk, ezta astean birritan edo hirutan agertzen den agerkaririk ere (...)».

beste hainbat ikerlanetan erabili dute (Idoyaga eta Ramirez de la Piscina, 2002: 39-40). Metodologia kuantitatiboaz gainera, metodo kualitatiboak ere erabili ditugu. Horrela, zenbait arduraduni *sakoneko elkarrizketa* egin diegu, galdetegi erdiegitu-ratuaren teknika erabiliz. Guztira, 140 aldizkari aztertu eta zortzi lagun elkarrizketatu ditugu.

	Antzinasuna	Maiztasuna	Zabalkunde- eremua	Lurraldea
<i>Aikor</i>	2001	Hilabetekaria	Txorierrri	Bizkaia
<i>Anboto</i>	2001	Astekaria	Durungaldea	Bizkaia
<i>Asteleheneko Goienkaria</i>	2003	Astekaria	Debagoiena	Gipuzkoa
<i>Eraz</i>	1993-2001	Astekaria	Durungaldea	Bizkaia
<i>Geu</i>	1992	Hilabetekaria	Gasteiz	Araba
<i>Guaixe</i>	1994	Hilabetekaria Astekaria	Sakana	Nafarroa
<i>Hernaniko Kronika</i>	2000	Egunkaria	Hernani	Gipuzkoa
<i>Oixe</i>	2001-2003	Astekaria	Sakana	Nafarroa
<i>Ttípi-Ttapa</i>	1981	Hiruhilabetekaria Hamabostekaria	Nafarroako iparraldea eta Lapurdiko hegoaldea	Nafarroa
<i>Txintxarri</i>	1994	Hamabostekaria Astekaria Astean birritan	Lasarte-Oria	Gipuzkoa

Behin lagina osatu eta gero, *kalitatea neurtzeko metodologia* garatu dugu. Kalitatea zer den ISO arauak zehazten dute:

Sortutako beharrak eta berezko beharrianak asetzeko gai den entitate baten ezaugarri oro².

Abiapuntu horretatik, euskarazko tokiko hedabideek argitaratzen duten informazioaren kalitatea aztertzeko, De La Torre eta Téraamo irakasleen VAP (Balio Erantsiaren gaineko Kazetaritza Indizea –BEKI, hemendik aurrera–) metodoa oinarri izan du ikerlan honek.

BEKI metodoak informazio-lanketaren bi aldiak kontuan hartzen ditu (aukeraketa-eta idazketa-prozesuak, hain zuzen), eta prozesu horietan eragina duten hainbat adierazle neurtzen du (De la Torre eta Téraamo, 2004: 31).

De La Torre eta Téraamo-ren azterlanak Argentinako bi egunkariaren informazioa neurtu du (*Clarín* eta *La Nación*). Baina gure lan honetan hizkuntza normalizaturik eta kazetaritza-eredurik izan ez dituzten euskarazko tokiko hedabideak aztertuko ditugu. Horregatik, BEKI metodoa hedabide horien errealitatera egokitu eta garatu behar izan dugu. Horretarako, bi atal bereiz daitezke ikerlan honetan. Alde batetik,

2. ISO araua, E. 8402 in De La Torre eta Téraamo, 2004: 37.

aldizkariaren nortasuna definitzen duten BEKlren ondoko adierazleak kontuan izan ditugu:

- Item kopurua.
- Azaleko albisteen osaketa.
- Azaleko albisteek aldizkarian duten isla.
- Albiste guztien tematika³ nahiz eragin-eremua. Azken alde hori Budd eskalaren arabera interpretatu dugu (Zabaleta, 1997: 101-102). Horretarako, eskala horren balioak bikoiztu ditugu eta gainerako metodoetan erabilitako batetik hamarrerako balio-sistema eratu dugu, ikerlanaren ondorioak ulerterrazago azaltzeko asmoz.

Bestetik, aldizkariak argitaratutako albisteen informazioaren kalitatea neurtzeko, BEKlren aukeraketa- eta idazketa-prozesuetako adierazleak aplikatu dizkiegu albiste nagusiei, azalean agertzen direnei alegia. Aukeraketa-prozesuan, albistean jatorria, oreka maila eta berdintasun-adierazleak, eta interes maila aztertu ditugu; idazketa-prozesuan, aldiz, albistean lanketa eta ikuspegia. Hona hemen adierazle bakoitzaren azalpena:

a. *Jatorria*

Informazio-emaileek zabaldutako albisteak kazetaritza-produktuaren kalitatea baldintza dezake, hedabidearen berezko agendarik eskaintzeko aukera murriztegera daitekeelako⁴.

BEKI metodoak bereizten dituen informazio-iturri motak (kanpoko iturriak, erreproduktzioa, kazetariaren ekimena eta zehaztugabeak) Txema Ramirez de la Piscina-ren *Prentsa Bulegoen eragina komunikazio prozesuan* izeneko doktore-tesiak (1993) landutako kategoriekin osatu ditugu. Horrela, lau jator-buru aurreikusitako ditugu: kazetariak bilatutako albisteak, gertakizuna, jatorri mistoko berriak eta adierazpenak.

b. *Oreka maila eta berdintasun-adierazleak*

Adierazle honek informazio-iturriak albistean duen egoera neurtzen du. Izan ere, kazetariak bi modu ditu albistera heltzeko: gertakizuna ezagututa edo informazio-iturrien bitartez. Azken horiek «interesatuak» (De La Torre eta Téramo, 2004: 77) direla kontuan hartuz, kazetariak bere ekimenez protagonistaren eta antagonistaren bertsioak biltzea sarituko du BEKIk. Era berean, protagonistak bere jardueraz emandako bertsioak punturik gutxien lortuko du.

c. *Interes maila*

Adierazle honek albisteak eragina izan duen lagun kopurua kontuan hartzen du. Ikerlan honek aztertutako albiste guztiak tokian tokiko eremukoak direnez, eremu horretan albistearen eragina neurtu dugu oso handia izatetik (afektatuen kopuru altua) oso txikia izatera. Hau da, irizpide geografikoa baino, albisteak

3. Idoia Camacho Markinak *Herri aldizkarien funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)* doktore-tesian garatutako gaien sailkapena erabili dugu.

4. «Kazetariak informazio-iturriekiko izan lezakeen mendekotasunak hedabidearen ahulezia erakutsiko luke (...). Informazio-iturriek eragin zuzen eta determinatzailea dute hedabideon informazioaren pautan, eta kazetariaren balizko mendekotasuna hedabidearen autonomiarik eza erakutsiko luke; azken horrek argitaratutako gaien hedabidearen autoritaterik falta ere ekarriko luke» (De La Torre eta Téramo, 2004: 67).

eragina izango duen taldearen osaketa eta kopurua lehenetsi ditugu.

d. *Lanketa*

Jator-buruen adierazlea osatze aldera, kazetariak euren idatzian izan duten esku-hartzea neurtzen du honek.

e. *Ikuspegia*

BEKI metodoak hiru kategoria bereizten ditu: gatazka islatzen duen artikulua, giza interesa nabarmentzen duen idatzia edota ondorioak azaltzen dituen lana.

Hortaz, adierazle horiei batetik hamarrerako puntuak esleitu dizkiegu, BEKI metodoak ematen dien garrantziaren arabera, aldizkariak alderatu ez ezik, bakoitzaren bilakaera ere aztertu ahal izateko. Honakoak dira BEKI aztertutako adierazleak eta, garrantziaren arabera, esleitutako puntuazioa.

Adierazleak	Puntuazioa
<u>Jatorria</u>	
Kazetariak bilatutakoak	2
Gertakizuna	1,5
Jatorri mistokoak	1
Adierazpenak	0,5
<u>Oreka maila eta berdintasun-adierazleak</u>	
Albiste neutroa	1,2
Protagonistak emandakoa	
Protagonistaren presentzia	0,6
Antagonistaren presentzia	1,2
Biak	2
Antagonistak emandakoa	
Protagonistaren presentzia	0,6
Antagonistaren presentzia	1,2
Biak	2
<u>Interes maila</u>	
Oso handia	2
Handia	1,8
Ertaina	1,2
Txikia	0,6
Oso txikia	0,3
<u>Lanketa</u>	
Lan-taldeak guztiz landuak	2
Lan-taldeak neurri handi batean landuak	1,5
Lanketa mistoko albisteak	1
Gehienbat kanpoko informazio-iturriek landuak	0,5
Kanpoko informazio-iturriek guztiz landuak	0
<u>Ikuspegia</u>	
Gatazka	0,6
Giza interesa	1,2
Ondorioak	2

Arestian esan bezala, kalitatea neurtzeko metodoa euskarazko hedabideen errealiterara egokitu behar izan dugu, hizkuntza normalizatua ez den neurrian, egoera horrek kazetaritzako beste esparruetan ere eragina duelako. Horrela, BEKI ez ezik, beste bi ezaugarri hauek ere kontuan izan ditugu: euskarazko tokiko hedabideek argitaratzen duten informazioaren euskara maila eta albisteon maketazioa.

Eukaltzaindiak emandako hizkuntza-arauek eta kazetaritza-jarduerak informazioaren euskara maila neurtzeko eremua finkatu dute. Hortaz, unean uneko Euskaltzaindiaren arauen arabera⁵ hedabidean erabilitako hizkuntzaren zuzentasuna⁶ neurtu dugu. Bestetik, *hizkera profesionala Euskaldunon Egunkariaren Estilo Liburuak (1992) finkatu du*, eredurik onartuena delako. Horrela, aldizkariak darabilten euskararen egokitasuna⁷ neurtu dugu.

Maketazioari dagokionez, diseinua aztertu ez badugu ere, aldizkariaren maketan *albistea jasotzeko modua* kontuan hartu dugu, euskaraz horren eredurik ez baita luzaroan egon. Fernando Lallana-ren *Tipografía y diseño* liburuko (2000) testua irakurterraza izateko zaindu beharreko hiru maketazio-alderi erreparatu die ikerlan honek: tituluarentzako hutsunea guztiz idatzita agertzea; paragrafoetako azken lerroak hitz bat baino gehiago izatea; eta tartekiak zutabe horretako, gutxienez, bi lerroko paragraforen baten ostean txertatzea.

Azkenik, euskarazko hedabideen izaera baldintzatzen duten diru-iturriak definitze aldera, aldizkariaren *publizitate-ratioa* aztertu dugu, zenbaki bakoitzean agertzen den “publizitate-mantxa” kalkulatzuz⁸, hau da, iragarkiek aldizkariaren zer portzentaje hartzen duten.

5. Azterlana

Lagina osatzen duten aldizkariaren egungo egoerari erreparatu diogunean, *Eraz* eta *Oixe* kanpo utzi ditugu, euren azken zenbakiak 2001 eta 2003koak direlako, hurrenez hurren. Tokiko aldizkariaren ibilbidea aztertzeko, baina, kontuan hartu ditugu, testigantza baliagarria ematen dutelako.

A. Maiztasunaren ondorioak


Aldizkariak hilabetekariak balira, egun kaleratzen dituzten orriak eta itemak ondoko grafikoak jasoko lituzke:

5. www.euskaltzaindia.net/arauak.


6. «Euskaltzaindiaren arauen arabera euskara da zuzena, arau horiek aplikagarriak diren egoera komunikatiboetan. Ortografia, joskera, ahoskeran... maila askotan daragi zuzentasunak» (Euskararen Aholku Batzordea, 2004: 24).

7. «Bere xederako egokia dena da euskara egokia, eta, Mitxelenak zioen bezala, hizkuntzaren xedea eragitea da batez ere. Egokitasun kontzeptu honetan txertatzen dugu, beraz, eraginkortasunaren alderdia [...]» (Ib.).

8. Goienako Publizitate Sailburu Gotzon Arzelusi egindako sakoneko elkarrizketa (2005/12/19, Arrasate –Gipuzkoa–).




Egunerokotasunak sortzen dituen albiste laburren kopuru itzela kudeatu behar izaten du *Kronikak*. Astean birritan kaleratzen diren argitalpenek (*Txintxarririk*), astekariek (*Asteleheneko Goienkariak*, *Guaixek* eta *Anbotok*) eta hamabostekariak (*Ttipi-Ttapa*) orriko item kopuruaren antzeko oreka mantentzen dute. Hala ere, maiztasunaren eraginez, hamabostekariak aurrekoek baino item gutxiago kalera-tzen ditu eta, ondorioz edo horrexegatik, orri kopuru murriztagoa du. *Asteleheneko Goienkariak*, baina, *Kronikak* eta *Txintxarririk* beste orri plazaratzen ditu hilean. Azkenik, hilabetekariak informazio gutxien ematen duten hedabideak ditugu. Hala ere, eskaintzen duten informazioa, oro har, landuagoa dela ikusi dugu aurrerago. Azken urteari dagokiola, *Asteleheneko Goienkaria* euren artean kokatu da:




Era berean, *Kronikak* *Anboto* astekariari eta *Txintxarri* aurea hartu die. *Ttipi-Ttapa*, ostera, informazio soila lantzen du, gehienbat. Hamabostekariaren zabalkunde-eremu itzeleko hogeitik gorako berriemaileen arteko koordinazioa, genero landuek eskatuko luketen bezala, zailagoa delako.

Uste daitekeenaren kontra, hilabetekariak ez diete “Zerbitzu” eta “Iritzi” sailei tarterik handiena eskaintzen. Alderantziz, maiztasun arina eta orri kopuru nahikoa

izateak komunitate-zerbitzuaren helburu hori baldintzatzen du. Horrela, *Txintxarrik*, *Asteleheneko Goienkariak* eta *Guaixek* aldizkariaren % 40tik gora eskaintzen diete sail horiei. *Anboto* astekaria hilabetekariaren pare egongo litzateke eta, *Ttipi-Ttapa*, informazioa lehenesten duenez, egunkarien mailan.



Maiztasunak ez ezik, aldizkariak plazaratzen duten informazioaren kalitatean kazetari kopuruak ere eragin handia du. Kazetari-talde sendoak albisteak lantzeko beta eman dezake. Lan-taldea osatzeko argitalpenaren zabalkunde-eremua kontuan hartzen dute aldizkariak. Horrela, eskualdera zabaltzen diren astekariak lehenengo postuetan topa ditzakegu (egunkariak eta astean birritan kaleratzen diren herriko argitalpenak tartean) eta, ondoren, hamabostekariak eta hilabetekariak, honela:



Aldizkarietan kazetari lan egiten duten erredaktore guzti-guztiek lizentziaturaren bat badute eta horien erdiak bakarrik kazetaritza-ikasketak ditu. Euskarazko hedabideen lan-baldintzek ezin dute lan-taldearen egonkortasuna bermatu, Andoni Basabek zehaztu bezala (2004: 2-3):


Norberaren jai egunetan lan egiteak ez dakartza jai egun bi, lan astearen iraupena gutxi gorabeherakoa da, soldata ez dago aurrekoen [hedabide publikoen] maila berean, sindikazio eskubidea planteatu ere ez da egiten, eta bajak hartzeak lana kideen artean banatzea dakar.

Tokiko aldizkariak kazetariari eskaini diezazkieketen lan-baldintzak hedabideen errealitatean ulertu behar badira, luzaroan mantenduz gero, proiektuaren kontra bueltatuko litzateke. Tokikoak, definizioz, txikiak dira eta txikitasun horretatik ondoriozta daitezke aipatutako diru-estutasunak. Autonomia, baina, komunikazio-egitasmoa aurrera ateratzeko ezinbestekoa dela deritzo Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak (Mendizabal, 2004: 9):

(...) Hedabide lokalek bakarka eta sektore bezala jarduteko beregaintasuna izan behar dute, hau da, beste hedabide-taldeein zein erakunde ekonomiko, politiko eta administratiboei dagokienez autonomiaz jokatzeko moduan izan behar dira. Bakarrik modu honetara bermatuko da independentzia, eta herritarrarentzat erreferentzialtasuna.

B. Komunikazio-kabineteen eragina

Komunikazio-kabineteek etengabe sortzen dute informazioa. Horiek tokiko hedabideetan duten eragina neurtzeko, aztertutako aldizkariak azken hiru hamarraldietan azalean argitaratu dituzten albisteen jator-buruei erreparatu diegu.



Kazetariak berak bilatutako gero eta albiste gutxiago agertzen dituzte tokiko hedabideek ere. Gorago azaldu bezala, tokian tokiko aldizkariak euren zabal-kunde-eremuan informazio-guneen sorrera eragin dute. Kontrako norabidean, azkenaldian argitalpenek iturri berri horien informazioa lantzeko inertzia hartu dute, eurek bilatutako albisteen kaltetan. *Ttipi-Ttapa*, *Geu* eta *Guaixe* aurreko hamarraldian lantzen zuten informazioaren erdia bilatzen du orain kazetariak. *Eraz-Anbotoren*, kasuan, gainera, bigarrenak ez du behin ere agenda propioko informaziorik agertu azalean. *Asteleheneko Goienkaria* eta *Oixe* astekariak ere ez dute horrelako albisterik lehenengo orrian argitaratu.

Guaixerekin batera, Aikor hilabetekariak kaleratzen duen informazioaren herena kazetari-taldeak bilatutakoa da. Bigarrenez, maiztasun guztiz ezberdinak dituzten lau aldizkari % 10era heltzen ahalegintzen dira: *Ttipi-Ttapa*, *Geu*, *Txintxarri* eta *Hernaniko Kronika*. Azken bi horiek hemen ere egiaztatu dute maiztasunak ez duela zertan informazioaren jatorria baldintzatu.

Tokiko hedabideek ere komunikazio-kabineteen eragina jasaten duten legez, euren albisteez gero eta tarte handiagoa daukate. Eragile politikoek kabineteen ugaritzea ekarri dute eta gizarte-eragileek ez diote erritmo horri eutsi (Ramirez de la Piscina, 1993: 151-187). Horregatik, tokiko hedabideak komunikatuen errutina horretan jausiko balira, aldizkarietan politika-gaiek gizarte-auziei lekua kenduko liekete. Mugimendu hori, gainera, denboran ikusi ahal izango genuke, komunikazio-kabineteen eragina 1980tik hona gertatu den fenomeno baita.

Lehenengo eta behin, aztertutako laginean badira politika-gairik lantzen ez duten aldizkariak. *Aikorrek*, esaterako, "ildo editorial legez" ez du udal-politikaren jarraipenik egiten⁹. Horrela, hainbatetan, gizarte-gaiek azalaren % 70 osatzen dute. *Asteleheneko Goienkariak* ere ez du politikarik lantzen. Gizarte-gaiek, gainera, urriak izaten dira, astekariak kirol eta kultur albisteez agertzen dituelako, batik bat. Azkenik, *Geu* aldizkariak, aztertutako hamalau urteko ibilbidean, behin baino ez dio politikari erreparatu¹⁰ hilabetekariaren azalean. Hala ere, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, gizarte-gaiek ez dute 90eko hamarkadan zuten tarte. Hortaz, politikarekin baino, kulturarekin ordeztu ditu *Geuk* gizarte-gaiek.

Aztertutako herri-aldizkariak nekez onartzen dute gizarte-gaiek politikarekin ordezte. Beren-beregi, hori saihesteko lana egiten dute, besteak beste, euskararen erabilera sustatzea helburu nagusia izanda, «albait lagunik gehien proiektu komunikatibora gerturatzea» bilatzen dute¹¹. Gizarte-gaiek erabateko garrantzia ez duten kasuetan, kulturak eta kirolek arreta hori eurenganartzen dute.

C. Publizitatea eta gainerako diru-iturriak


Tokiko aldizkariak bi finantziazio-bide nagusi dituzte: publizitatea eta herri-administrazioen diru-laguntzak. Atal honetan lagina osatzen duten hedabideen publizitate-mantxari erreparatuko diogu.

Horrela, herri-administrazioen baten diru-laguntzarik jasotzen ez duten aldizkariak publizitate-mantxa handia azaltzen dute, hala nola: Arabako *Geu*, Nafarroako *Guaixe* eta *Ttipi-Ttapa*, eta Bizkaiko *Aikor* aldizkariak. Horien artean, doakoak ez diren bi argitalpen ere badaude, *Geu* eta *Ttipi-Ttapa*, hain zuzen. Horrek ez du esan nahi, jakina, diru-laguntzek publizitatea eta prezioa ordezten dituztenik. Bestelako kontzeptuak dira. Publizitate eta gainerako diru-iturriekin ere bideraezinak baitira euskarazko hedabideak, merkatu txikia dutelako eta, horregatik, garatzerik izan ez duen hizkuntzaren egoera horri erantzuten diote diru-laguntzek.

9. *Aikorreko* zuzendari Xabier Goienetxeri eginiko elkarrizketa (2006/04/25).

10. 2005eko apirilko 148. zk.

11. Elkarrizketatu guzti-guztiek azpimarratutakoa.



Maiztasunak, berriro ere, ez du publizitatea baldintzatzen. Hau da, egunkariak ez dute zertan hilabetekariak baino iragarki-mantxa txikiagoa eduki. Horrela, *Txintzarri* eta *Guaixek* % 20ko publizitate-ratioa agertu dute. «Proiektua bideragarria izateko, publizitateak azalaren % 30 estali behar du», azaldu du Goienako Publizitate Sailburu Gotzon Arzelusek. Gorago esan bezala, ikerlan honetan mantxa baino ez dugu neurtu eta horrek ez du ziurtatzen iragarki guztiak ordainduta daudenik. *Txintzarri*ren kasua bereziki aipagarria da herri bakar batean zabaltzen delako eta ez, antzeko publizitate-ratioa duten gainerakoen modura, eskualdean. Hortaz, banaketa-sistemak iragarleak erakartzen dituela egiaztatzen du grafikoak, *Aikor* eta *Txintzarri* zabalkunde-eremuko etxe guzti-guztietan banatzen direlako. Zabalkunde handia du ordaintzekoa den *Ttipi-Ttapa* eta bere publizitate-ratio altuan igartzen da. Horregatik, kioskoetan banatzen den *Hernaniko Kronikak* publizitate-mantxarrik txikiena du. Kasu horretan, baina, maiztasunak bestelako diru-iturri bide ematen die, hala nola, eskelei. Beraz, hiru izan daitezke ohiko publizitatean eragiten duten aldagaiak: zabalkunde-eremu handia, botaldi zabala eta maiztasunik bideragarriena.

Merkatarien publizitate-kultura bultzatu dute tokiko hedabideek. Hala ere, iragarki horiek goia jo dutela azpimarratu du Arzelusek. Horregatik, aldizkariak bestelako diru-iturriak bilatzen ari dira: laguntzailearen figura sortu dute (urtean kuota bat ordaintzean datza), beste esparru batzuetara zabaltzen hasi dira (*Aikor* aldizkariak *Lan Txori* urtekari profesionala kaleratu berri du uztailean), bestelako produktuak kaleratzen dituzte (liburuxkak, adibidez) eta, azkenean, aldizkariari prezioa jarri diote (*Asteleheneko Goienkariak*, *Geu* eta *Ttipi-Ttapa*).


Bestetik, argitalpenak duen publizitate-mantxarekiko jarrera aldatuz joan da. Soberazko edukiak izatetik, «aldizkariari nortasuna ematen dioten elementu gisara» ulertzen ditu zenbaitek, *Ttipi-Ttapa*ko kudeatzaile Joxemanuel Irigoienek zehaztu-takoaren arabera.

D. Informazioaren kalitatea, euskara maila eta maketazioa

Aztertutako hamar aldizkariak BEKlren maila nahiko orekatua agertu dute. Hortaz, tokiko hedabideen informazio mota tipikoa honakoa dugu: *gertakizunetan*

oinarritutako albisteak da eta, horregatik, kazetariak berak ikusita edo protagonistaren lekukotzaz baliatuta, giza interesaren ikuspegitik aurkezten du eta interes maila handia edo oso handia duen informazio hori lan-taldeak guztiz lantzen du. Horrek, informazioaren jatorrien inguruko atalean ikusi dugun legez, aldizkarien mendekotasunik eza eta, beraz, askatasuna erakutsiko luke.

Aldizkarien lehenengo zenbakiaren eta azkenaren arteko alderaketak¹² euren ibilbidearen norabidea laburbil dezake. Lehenengo zenbakia oso landuta egoten da, erredakzioak ez baitu oraindik orain maiztasunaren erritmoa gertu, baina aldi berean eskarmenturik ez duen aldizkaria da. Azken zenbakiak, alderantziz, bere arlo horretan esperientzia du, lan-errutinak beste erritmo batera eraman badu ere. Hona hemen hasierako zenbakia eta aztertutako azkenaren arteko alderaketa, BEKlren arabera:




Horrela, argitalpenen erdiak lehenengo zenbakiaren puntuazioa gainditu du. Bestetik, baina, Aikorrek, Asteleheneko Goienkariak, Erazek, Geuk eta Txintxarrik lehen zenbaki horretako informazioa gehiago zaindu zuten, azken zenbakikoa baino. Aipatzekoa da bost horietako lauk ez zutela euren argitaratzea albiste nagusi moduan azaldu. Horregatik, lehenengo zenbakiak hedabide-funtzioari heldu zion eta, BEKIk esleitutako puntuazioaren arabera, bi ezaugarri nagusitu ziren: kazetariak berak bilatutako albisteak ziren eta, horregatik ziur asko, afektatu kopuru altua zuten. Dena den, azken zenbakiak lehenengoak baino puntuazio txikiagoa lortu duen kasuetan, aldea puntu bat baino txikiagokoa izan da, Geu salbu. Bost aldizkari horiek eta BEKlren puntuazioa igotzea lortu duten gainerako bostek azken hamarraldian ugaritu diren komunikazio-kabineteen eragina gainditu behar izan dute. Horregatik, gaur egungo kazetaritza-egoerak albiste-agenda propioa lortzeko aurkezten dituen trabak gainditu izana tokiko aldizkarien berezko jardueraren alde agertzen da.

Aldizkariak darabilten euskara maila oso landua da. Hizkuntza-eredu egokia erabiltzen dute. Tokiko aldizkariak, baina, ez dute kazetaritza-euskararik sortu eta, horregatik, Euskaldunon Egunkariaren Estilo Liburuari jarraitzen diote hainbatetan. Hala ere, euskararen zuzentasun gramatikala gehiago zaintzen dute.


12. Erazen azken zenbakia 2001ekoa da eta Oixerena, aldiz, 2003koa.

Lau aldizkarik aurreneko zenbakian baino malguago jokatu dute azken zenbakian, honakoek: *Anboto*, *Asteleheneko Goienkaria*, *Eraz* eta *Ttipi-Ttapa* aldizkariak. Lauron lehenengo zenbakia zortziaren bueltan dago. Azken zenbakiak, aldiz, kazetaritza-hizkerari ez dio horrenbeste erreparatu. Dena den, *Eraz* kenduta, gainerako hirurek puntu bat inguru bakarrik galdu dute.

Gainerako sei aldizkariak unean uneko Euskaltzaindiaren arauak bete ez ezik, kazetaritza-euskara ere ondotxo zaindu dute eta *Geuk*, *Oixek* eta *Txintxarrik* hamar puntu lortu dituzte azken zenbakian (azken *Oixe* 2003koa da).




Maketazioak, azkenik, zenbait kasutan beherakada nabaria izan du. Hortaz, tokiko hedabideek informazioari eta euskarari azken alde honi baino arreta handiagoa eskaintzen dietela esan dezakegu. Izan ere, gorabeherarik handienak agertzen dituen atala dugu hau. Paradoxikoki, aurreko kasuetan gertatzen ez zen bezala, aurrerapen teknologikoek lan hau izugarri erraztu dute azken urteotan.



Adibide moduan, *Eraz* eta *Anbotoren* arteko aldea aztertuko dugu, tituluei bakarrik begiratuta. *Erazek* *Anbotoren* lan-talde erdia zuen. Aztertutako *Erazeko* albiste guztien tituluen % 31,94k ez du diseinuko tartea guztiz betetzen, bost karaktereren faltan gutxienez, edota bi lerroko berbak ebakitzeko gidoi bat agertzen du. *Anbotok* kopuru hori % 23,53ra jaitسي du, batez beste, eta % 15,625era,

azken zenbakian. Horregatik, aldizkariak ez lukete gutxietsi beharko maketazioak albistearen irakurgarritasunean duen eragina (Lallana, 2000: 78-79), kazetariaren beraren lana baita.

Herririk herri edo eskualderik eskualde zabalduko hedabide horiek mugimendu zabala osatzen dute. Ondoren, aldizkariak agertzen dituzten ezaugarri orokorrak aztertuko ditugu, hasierako zenbakia eta azkena kontuan izanda¹³:



Alde batetik, hasierako zenbakiak euskara maila lehenesten dute (8,232). Bigarren, informazioaren kalitatea zaintzen dute (7,29). Azkenik, maketazio-arauak ditugu (6,96). Bestetik, 2006ko zenbakiak hurrenkera berari eusten diote: euskara maila, informazioaren kalitatea eta maketazioa. Hortaz, informazioak baino euskara mailak garrantzi handiagoa agertzen du aldizkarietan. Azken urteotan euskara gero eta arautuago dago, Euskaltzaindiak hizkuntzaren alde gehiago dituelako aztertuta eta *Estilo Liburuak* kazetaritza-hizkera garatu duelako. Gainera, kontzeptu berriak sortu dira eta horiek euskaratzeko ahalegina egin behar izan dute hedabideek. Beraz, inguruabarrek kontrako joera errazten bazuten ere, tokiko aldizkariak unean uneko euskararen arauak egokitzeko gaitasuna agertu dute. Izan ere, hasierako puntuazioa gainditu ere egin dute: 8,382 puntu lortu dituzte 2006an.

Tokiko aldizkariak argitaratzen duten informazioak zenbait aldaketa izan du azken hogeitun urteotan. Lehenengo eta bat, komunikazio-kabinete profesionalak albisteak sortu eta garatu ere egiten dituzte gaur egun. Bigarren, zenbait aldizkarik maiztasuna areagotu dute eta horrek lan-zama handiagoa dakar. Testuinguru horretan, eskaintzen duten informazioaren kalitatean sakondu dute tokiko aldizkariak. Hortaz, hasierako zenbakiak BEKI indizea ere gainditu dute: 7,41 puntu dituzte 2006ko informazioaren kalitateak.

13. *Eraz* eta *Oixe* azterketa honetatik kanpo utzi ditugu, lehenengoaren azken zenbakia 2001eko delako eta bigarrenarena, aldiz, 2003koa.

Hasierako zenbakien antzera, maketazioa gutxien zaindutako aldea dugu. Gainera, aurrerapen teknologikoen lan-prozedura erraztu duten epealdian, inoiz baino puntuazio txikiagoa izan dute hedabideek: 6,23, hain zuzen. Horrela, hasierako zenbakietan hiru aldagaiek erakusten zuten zelanbaiteko oreka galdu dute aldizkariak eta hiru aldagaien arteko distantzia areagotu da.

Horregatik guztiagatik, euskararen erabilera sustatzeko asmoz sortu ziren argitalpenek hizkuntza-eredua ondotxo zaintzen dute. Tokiko hedabideek sorrerako helburutik haragoko bidea ere egin dutela azpimarratu nahi izan dute *Hernaniko Kronikako* zuzendari Unai Agirrek eta *Ttipi-Ttapako* kudeatzaile Joxemanuel Irigoienek: «Irakurleek informazioari euskaraz idatzita egoteari baino garrantzia handiagoa ematen diote». Horregatik, informazioaren kalitatea oinarrizkoa suertatzen da eta, aldi berean, hizkuntza zaintzea ezinbestekoa da.

6. Ondorioak

1. Hasierako urteetan, *sorrera-uneko orri kopuruari eutsi diote aldizkariak*. Ondoren, bost urte bete aurretik gehienetan, *kopuru hori igotzeari ekin diote*. Maiztasuna areagotuta ere, orri kopuru altuagoa plazaratzen jarraitzen dute aldizkariak. Hortaz, orri kopurua mantentzeko edota, kasurik txarrean, horixe jaisteko, arazo ekonomikoak izan dira.

Orri kopuruarekin batera, *item kopuru gehiago ere jasotzen dituzte aldizkariak*. Maiztasun arineko produktuek, hau da, astekariaren formatutik egunkariaren aldizkakotasunerako jauzia eman dutenek, baina, “Iritzi” eta “Zerbitzu” atalek hilabetekarietan beste leku hartzen dute. Horrela, informazio hutsaren ikuspegitik, astekariaren itemik gehienak albiste dira. Astekariaren egunkariaren formatuek, oster, item kopuru altua mantentzen jarraitzen dute, bestelako informazioa ere lantzen dutelako, hala nola, agenda, guardiako farmaziak, garraio bideen ordutegiak, erredakzioetik kanpoko iritzi-artikuluak.

Aurrera begirako ikerlanek orriak gehitzean item kopurua ere ugartu egiten dela frogatu duen alde honi erreparatzeko beharrik ez dute, logikoa izateaz gain, egiaztatuta ere geratu baita.

2. *Maiztasuna areagotzean, berezko inertzian, informazio soilak genero landuak alboratzen ditu*. Hortaz, aldizkariaren erabakia dugu hurrenkera horri buelta ematea. Egunkariak ere informazio landua plazara dezaketela egiaztatu dugu. Horregatik, informazioa genero landuen bitartez eskaintzeak erredakzioaren hautu kontzientea eskatzen du. Tokiko aldizkariaren kasuan, maiztasuna areagotu ez duten proiektuek gero eta genero landu gehiago kaleratzeko asmoa agertu dute.

Badira informazio soilak baino ematen ez duten hilabetekariak, 1990eko produktutik tipikoak alegia. Orain, informazio soilaren eta genero landuen arteko oreka talde multimediaren egiturak berak ere definitzen du: esaterako, telebistak edota web orriak behin informazioa zabaldu eta gero, medio idatziak albiste hori landu beharko du eta horren berri emate hutsa gainbeheran doan joera bihurtuko da, idatzizko prentsak aurrera egin nahi badu.

3. Aztertutako aldizkari bat ere ez da *publizitate-mantxaren % 30era heltzen*. Hortaz, berez, *hedabideak ezin daitezke bideragarriak izan*, herri-administrazioen diru-laguntzak izanda ere. Honako hiru aldagaiek ohiko publikitatean eragina dute: zabalkunde-eremu handiak, botaldi zabalak eta maiztasunik bideragarrienak.

Beste iragarle eta publikitate mota baten bila abiatu ez ezik, formula originalak ere topatu dituzte tokiko aldizkariak. Hor dugu aldizkariaren “laguna”. Kasu horretan, aldizkariarentzako sostengua eskaintzen du irakurleak eta, harpidetzarik ordaintzen ez badu ere, sarritan euskara elkartearen produktuak doan izaten ditu.

Doakotasunak irakurleak erakartzen dituen neurrian uxa ditzake ordaindu beharrak, *Erazen* kasua dugu horren adibide. Dena den, *Tipi-Ttapa* aldizkariak ere prozesu bera bizi izan zuen eta lehengo botaldiari eutsi dio, hau da, doan jasotzen zutenek aldizkariari prezioa ordaintzeko beste balio aintzatetsi diote.

4. *Komunikazio-kabineteen eragina tokiko hedabideetaraino zabaldu da*. Hortaz, 2000ko hamarraldian aurrekoetan baino kazetariak bilatu ez dituen albiste gehiago kaleratzen dira. Aldizkariaren maiztasunak inertzia horretara eraman bagaitzake ere, erredakzioaren hautu kontzientea dugu honakoa ere. Hau da, aldizkariaren maiztasuna edozein izanda, kazetariak bilatutako albisteen kopuru absolutua eta horiek hartzen duten tarte handiagoa izateko apustua egin beharko luke hedabideak, gainerako komunikabideetatik bere burua bereizteko kalitatea erabakigarri izatea nahi badu. Aldizkariak ibilbide luzea eginda izateak eta, alde horretatik, zabalkunde-eremuko erreferente izateak edota berriemaile-sare zabala edukitzeak lan hori erraz dezakete.

5. Tokiko aldizkariak komunikazio-kabineteen eragina jaso dutela egiaztatu arren, *gizarte-gaiak lehenesten jarraitu dute*. Hortaz, politikari buruzko albisteek jasan dute kabineteen eraginik handiena. Hots, 1990eko politika-albisteez kazetariak berak bilatutakoak baziren ere, orain komunikazio-kabineteen batek zabaldutakoak agertzen dituzte aldizkariak. Politika-gaiak ematen duten erraztasunean ez jausteko hautu kontzientea egin dute tokiko hedabideek eta, gizarte-gaiak ordeztetik, kultura lehenetsi dute eta ez politika.

Albait irakurlerik gehienengana heltzeko ahaleginak gizarte-gaiak lehenestera eraman ditu aldizkariak. Hortaz, gorago detektatu dugun arriskua gizarte-eremura ere zabal daiteke, hau da, gizarte-eragileek komunikazio-kabinete profesionalak sortu ahala, esparru horretako albiste “profesionalizatuak” agertuko dituzte aldizkariak, hori saihesteko beren-beregiko hautua egin ezear.

6. Gorabeherak gorabehera, *Balio Erantsiaren gaineko Kazetaritza Indizea (BEKI) goranzko norabidean mantentzeko ahalegina egiten dute aldizkariak*. Argitaratzen duten informazioaren kalitatea hobetzen saiatzen dira tokiko hedabideak. Hortaz, lehenengo eta behin, albisteez eragina izango duen taldearen nolakotasuna kontuan hartzen dute aldizkariak. Zenbat eta lagun gehiago ukitu izan, orduan eta garrantzi handiagoa ematen diote albiste horri. Bigarrenez, gertakizuna ondorioen argitan interpretatzeko joerak informazioaren beraren tratamendua nabarmen hobetzen du. Hortaz, albisteez publiko orokorrari azaltzeko gaitasunak aldizkarien kalitatean eragina izan du. Aldizkariaren maiztasuna areagotzeak ez du informazioaren kalitatea kaltetu.

7. Euskarazko tokiko aldizkariak hizkuntza zuzena erabiltzen dute, baina ez diete Euskaldunon **Egunkariaren Estilo Liburuko** arauak lehentasunik ematen. Tokiko hedabideek, hortaz, ez dute kazetaritza-hizkera irakurleengana gerturatu. Hala ere, etengabe sortzen diren berba berriak euskaratzeko gaitasuna erakutsi dute. Aldizkariak ondoen zaintzen duten aldea euskararen zuzentasuna dugu.

8. *Maketazio-arauak, ostera, gero eta gutxiago zaintzen dituzte kazetariak*, albistearen irakurgarritasunean duten eragina ahaztuz. Denborak aurrera egin ahala, gainera, aurrerapen teknologikoak lan-prozedura erraztu arren, gero eta arreta txikiagoa ematen diote alde honi. Hortaz, maketazio- eta diseinu-arauak zaintzeko arreta berezia jarri beharko lukete kazetariak.

9. *Aldizkariak plazaratzen duten informazioaren kalitatea gero eta hobea izan dadin, giza baliabideetan inbertitu beharko luke hedabideak*. Lehenengo eta behin, komunikazio-kabineteetatik kanpoko informazioa lortzeko eta gainerako komunikabideetatik bere burua kalitatearengatik bereizteko behar beste kazetari behar ditu aldizkariak. Berriemaileen sareak informazio ugari eman arren, egitura ahula den neurrian, ez du argitalpenaren jarraitutasuna bermatzen. Aldizkariak kazetaritza-hizkeran ere trebatutako kazetariak behar ditu. Lan-baldintzak ditugu, hain zuzen, euskarazko hedabideek konpondu beharreko auzia.

10. Aurki 800.000 hiztun izatera heldu den herri honek *tokiko hedabide-sare zabala garatu du*. Europako beste hizkuntza gutxituek sortu ez duten komunikazio-esparru oparoa eraiki da Euskal Herrian. Hasierako urteetan, aldizkaria sortzea zuten helburu euskara elkarteek, “pizkunde-garaia” zen. Geroago, “irautea” bilatu zuten. Hemendik aurrera, errealitatea “iraultzeko” sasoia badela egiaztatu du ikerlan honek. Hizkuntza-komunitatearen informazio-premiak asetzeko helburuarekin, bertako errealitatea irudikatzen dute tokiko hedabideek. Gainera, sarritan, erdal komunitateko kideengana ere heltzen asmatu dute, aldizkariaren informazio-iturri eta irakurle modura erakarriz, hain zuzen. Alde horretatik, errealitate soziologikoa etengabe irauli egiten dute. Bestetik, aldizkariak aldaketen aurrean erakutsi duten irudimena azpimarratzekoa da.

7. Aurrera begira

Tokiko hamar aldizkari aztertu ditugu lan honetan. Lagina osatu duten hedabide horiek, baina, ezin dute tokiko aldizkariaren errealitatea ordezkatu. Horregatik, sektore horretan badira oraindik orain aztertu ez diren produktuak. Hasteko, herrian zabaldu eta, ondoren, eskualdera hedatu diren proiektuak ditugu. Bigarrenaz, boluntarioen bitartez baino kalera ateratzen ez den aldizkaria ere aztertzea komeniko litzateke. Hirugarrenez, talde komunikatibo handia osatzeko asmoa duten *Hitza* proiektuak, berriak diren legez, ikertu barik daude. Azkenik, talde multimedia osatzen duten tokiko hedabideak eta euren arteko harremanak aztertzeke ditugu. Horrekin guztiarekin, euskarazko tokiko hedabideen errealitatea ezagutu ahal izango genuke. Horrela, gainera, proiektu komunikatiboa martxan jartzeko aholkuak lortuko genituzke, elkarrengandik ikasiz.

Bestetik, euskarazko komunikazio-esparrua aztertzeke metodo baliagarria delakoan gaude. Horrela, hedabideok izan duten bilakaerari erreparatuta, hartzailerik

gehien izateko baliagarriak izan zaizkion estrategiak ezagutu ahal izango genituzke, bai idatzizko prentsan, bai ikus-entzunezko hedabideetan ere. Hortaz, Internet bidezko hedabide berrien eragina aztertzeo aukera izango genuke.

Komunikabideen egungo egoera, gainera, krisialdiarekin lotu da. Horrek oraingo zenbait ezaugarri aldatzera behartuko ditu hedabideok. Lehenengo eta behin, komunikabideen sinesgarritasunik eza dugu, batez ere, AEBko *The New York Times* egunkariko erredaktore Jayson Blairrek, 2002ko urritik 2003ko apirilera bitartean idatzitako 64 bat artikulutan, gezurrezko informazio-iturriak erabili zituela jakin zenetik. AEBko egunkariak irakurleen sinesgarritasuna berreskuratzeko proposatutako gomendio batzuk (Siegal, 2006: 5-15) BEKI metodoak ere aztertzen ditu, honakoak: informazio-iturrien gardentasuna; akats ortografikoak ekiditea; eta albistea eta iritzia bereiztea.

Hedabideen nazioarteko krisiaren bigarren erakuslea erdarazko doako egunkarien zabalkunde itzela dugu. Horiek, hainbat kasutan, kazeta tradizionalen botaldia gaintu dute. Aldi berean, gainera, ohiko irakurleak ez ziren lagunak erakarri dituzte, hau da, irakurle berriak sortu dituzte. Euskarazko komunikazio-esparruan izango duten eragina neurtzeke dago. Ildo horretatik, euskarazko tokiko hedabideek sortutako "irakurle berriak" interpretazio berri horren argitara berrazter daitezke. Izan ere, erdaraz irakurri bai eta, euskaraz alfabetatuta egon ez arren, bigarren hizkuntza horretako argitalpenak irakurtzeko ohitura sortu dute euskarazko argitalpenek. Ikus-entzunezkoek, bestetik, alfabetizazio-prozesu horretan eduki kulturalak ere txertatzen asmatu duten neurtu beharko litzateke.

Azkenik, aztertzeke dago zelan baldintzatuko duten Internet bidezko hedabideek gainerako komunikabideen informazioaren tratamendua. Horietan, esaterako, ez dago denbora-mugarik eta edozein unetan azken momentuko gertakizunen berri eman dezakete, ikus-entzunezko medioek baino baliabide gutxiagorekin gainera. Aldi berean, herritarren parte-hartzea errazten duten komunikabideak dira.

Hortaz, euskarazko komunikazio-esparruaren bilakaera, alde batetik, eta euskarazko hedabideek nazioarteko panorama berri horretan jokatu behar izango duten rola eta horren eraginkortasuna, bestetik, aztertzea hizkuntza eta hedabideontzat ere lagungarria izango da.

Bibliografia eta erabilitako dokumentazioa

- Aiestaran Yarza, A. (2007an irakurtzeke): *Deba Barreneko euskarako komunikazio sistema: herri aldizkarien kazetaritza genero eta gaien analisia 2000-2004* (Drogeteniturri, ...eta Kitto!, Pii-Pilean, Barren, Berriketan eta Kalaputxi), doktore-tesia, EHU, Leioa.
- Aranguren Larrañaga, A. (2000): *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*, doktore-tesia, EHU, Leioa.
- Basabe, A. : "Euskal Kazetarien lan-baldintzak edo baldintza bako lana" in A.A.A.A. (2004): *Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresua*, Berria, EIE, EHU, Topagunea eta UEU, Bilbo.
- Camacho Markina, I. (2001): *Herri aldizkarien funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999)*, doktore-tesia, EHU, Leioa.

- De La Torre, L. eta Téramo, M. T. (2004): *La noticia en el espejo. Medición de la calidad periodística. La información y su público*, Educa arg., Buenos Aires.
- Euskaldun Egungaria* (1992): *Estilo Liburua*, Egunkaria SA arg., Andoain.
- Euskararen Aholku Batzordea (2004): *Euskararen Kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.
- Fanon, F. (1999): *Los condenados de la tierra*, Txalaparta arg., Tafalla.
- Idoyaga, P. eta Ramirez de la Piscina, Tx. (2002): *(In)Komunikazioaren atarian. Prentsa eta euskal gatazka*, Alberdania, Irun.
- Lallana, F. (2000): *Tipografía y diseño*, Sintesis arg., Madril.
- Mendizabal Altuna, J.: "Tokian tokiko prentsa eta informazioaren gizartea" in A.A.A.A. (2004): *Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresua*, Berria, EIE, EHU, Topagunea eta UEU, Bilbo.
- Ramirez de la Piscina, Tx. (1993): *Prentsa Bulegoen eragina komunikazio prozesuan*, doktore-tesia, EHU, Leioa.
- , (1998): *Kazetari-lana Euskal Herrian*, UEU, Bilbo.
- Siegal, A. M. (2006): *Preserving our readers' trust*, New York Times, New York (AEB).
- Zabaleta Urkiola, I. (1997): *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*, UEU, Bilbo.

DOKUMENTUAK

- * www.euskaltzaindia.net/arauak
- * *Anbotoko irakurleei egindako inkesta (2006/02)*

SAKONEKO ELKARRIZKETAK

- * Unai Agirre (*Hernaniko Kronikako* zuzendaria, 2006/06/12, Hernani –Gipuzkoa–).
- * Gotzon Arzelus (*Goienako Publizitate Sailburua*, 2005/12/19, Arrasate –Gipuzkoa–).
- * Eneko Azkarate (*Asteleheneko Goienkariako* zuzendaria, 2006/06/30, Arrasate –Gipuzkoa–).
- * Aitor Azkonobieta (*Txintxarriko* zuzendaria, 2006/06/12, Lasarte-Oria –Gipuzkoa–).
- * Gorka Barrietabehña (*DHK-ko lehendakaria eta Erazeko lehendakaria*, 2006/05/11, Durango –Bizkaia–).
- * Xabier Goienetxe (*Aikorreko* zuzendaria, 2006/04/25, Zamudio –Bizkaia–).
- * Joxemanuel Irigoien (*Ttipi-Ttapako* kudeatzailea, 2006/06/19, Etxalar –Nafarroa–).
- * Garbiñe Petriati Ijuria (*Guaixeko* kudeatzailea, 2006/05/17, Altsasu –Nafarroa–).

